


25. atala ABADETXEA

Iurretako kaleen izenak ikasita kalera atera ziren berriro ere Jone eta Aritz. Eguraldi onak lagun plazara abiatu ziren han jolasean aritzeko asmotan.

- Hutsik dago plaza Jone!
- Nai, gaur egun ez da hainbeste jende ibiltzen, baina orain dela urte gutxi arte bizi-bizi zegoen plaza. – Azaldu zion Jonek bere nebari - Eta Abadetxeak eragin handia izan zuen horretan.
- Abadetxea... itxaron... - Hasi zen Aritz – A bai! Leihoetan hormak dituen hori?
- Horixe Aritz! Etxe horren historia ezagutu nahi duzu?
- Horixe baietz!
- Begira, 1739. urteko urriaren 21ean, garai hartako Iurretako abadeak eta udal ordezkari batzuk elizpean bildu ziren Abadetxeari buruz hitz egiteko. – Hasi zen Jone kontatzen.
- Ordukoa da Abadetxea? – Aritzek harrিতuta.
- Bai. Abadetxea herriko diruekin eraiki berria zen eta bilera hartan Iurretako udalak abadeen esku utzi zuen etxea. Hala ere, adostu zuten egunen batean abadeek etxe hura erabiltzeari uzten bazioten Iurretako herriari itzuli beharko zioten.
- Eta zer gertatu zen gero?
- 100 urte baino gehiago pasa eta gero, 1898. urtean, Gasteizko elizbarrutiak Durangoko jabetza erregistroan bere izenean erregistratu zuen Abadetxea. “Etxe hau guk, abadeok, erabiltzen dugu eta beraz gurea da” esanez.

ARIKETA:

- Idatzi komikiko bokadiloan Abadetxearekin zer egin nahi zenukeen.
- Baina hori ez da horrela! – Bota zuen Aritzek – Iurretarren diruekin egin bazen iurretarrona izan behar luke!
- Baina askotan esan dizudan bezala elizak botere handia du Aritz. Hala ere abade guztiak ez dira berdinak izan historian. 60. hamarkadan Julen Kaltzadak bere etxea herriko gazteei zabaldu zien eta ordutik herriko hainbat eta hainbat elkartek erabili zuten “Saloia”. Erdiko etxean Martin Aranbarri abadeak aisialdi arloa landu zuen Aurrera Begira elkartearekin eta 1999 ko azaroan Jon Onaindia abadearen oniritziarekin Iurretako Gaztetxea sortu zen bertan.
- Ederra! Baina Jone, orain etxea ez du inork erabiltzen.
- 2006. urtean istripuz sortutako sute batek etxea kiskali zuen herriko elkarte eta eragile asko kale gorrian utziz. Elizak etxearen kanpoaldea eta teilatua konpondu zituen etxea eraitsi ez zezaten eta dirutza eskatzen du etxea berriz herriarren esku uztearen truke.



1935 - 2017
JULEN KALTZADA
 “HA ETXEA EZ DA NIREA
 HERRIARENA BAÑO,
 ZE BERAK EMON DAUST.
 HORREGAITIK BETI DAGO ZABALIK
 HERRIAK BEHAR DABENEAN
 ERABILI DAGIAN.”